

DIRU-SARRERAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure proiektuaren diru-sarrerak ikasleek antolatutako bi jardueretatik lortzen dira: ostiraletako merendolak eta larunbatetako taberna zerbitzua. Bi kasuetan, bezeroek eskaintzen zaien zerbitzuaren truke ordainketa zuzena egiten dute.

Merendolen kasuan, bezero nagusiak ikastolako HH eta LHko ikasleen familiak dira. Zerbitzu honengatik ordaintzeko prest daude, umeentzako zaintza, merienda eta jolasak barne hartzen dituelako, eta prezioa txikiak edo antzeko zerbitzuak baino eskuragarriagoa delako.

- Ume bakoitzeko prezioa: 11 €
- Anai-arreba bakoitzeko prezioa: 6 €

Prezio sistema honek inklusibitatea sustatzen du, familia ugarietarako erraztasunak emanez, eta aldi berean proiektuarentzat diru-sarrerak lortzen ditu. Diru-sarrera hauek ordainketa bakarrekoak eta prezio finkoak dira, jarduera bakoitzean bertan kobratzen direlako.

Bigarren diru-sarrera nagusia larunbatetan antolatutako taberna zerbitzua da, eskola kirola dagoenean batez ere. Bezeroak ikastolara hurbiltzen diren gurasoak, ikasleak eta ikusleak dira, hamaiketako egiteko beharra dutelako.

Tabernan honako produktuak salduko dira:

- Kafea
- Freskagarriak
- Txaskiak eta patatak
- Patata tortila pintxoak

Produktu horien salmentak ordainketa bakarreko diru-sarrerak sortzen ditu, eta prezioak finkoak izango dira, kontsumitzaileentzat argitasuna eta erosotasuna bermatzeko.

Dirua banatzerako garaian, taberna egun edo merendolan lan egiteagatik, ikasle bakoitzak parte-hartze bat irabaziko du. Kurtso bukaeran, bakoitzaren parte hartze guztiak kontatuko dira eta irabazitako diru guztia, parte-hartzeen arabera banatuko dira.

Proiektu honek ez du diru-sarrerak soilik une jakin batean sortzen; baizik eta, urtero errepikatzeko modukoa da. Ikasbidaia amaitu ondoren, proiektuaren kudeaketa hurrengo promozioaren esku geratuko da, eta horrek diru-sarrera errepikariak sortzea ahalbidetuko du epe luzera.